

JESUS KURUTZEKOA KRISTAUAREN BIZITZAN

1

Ondo etorri, anai-arrebok,
alkartu gara barriro,
Kurutz-ondoan Jesus Onari
dana eskertuz bizi.
Bihotz betean hasi gaitzan
gogo beroz ta astiro,
fede-argitan entzun deiogun
ta erantzun maitekiro.

2

Kurutze baten bizia emon
eta salbatu gaituzu,
geurerik ezer ez dogu ta
dana Zuri zor deusugu.
Harrezkero Zu benetakoa
Kurutzeduna zaitugu,
kurutze-giltzaz zeru-atea
doan edegi deuskuzu.

3

Askotariko kurutzak datoz
bizitzan gure gainera,
bakotxa bere mailan jartzeko
Kurutzea da aukera.
Baina nik badot lagun zintzo bat
indartsu ta bihozbera:
Betor kurutza, baldin badator
Jesus beragaz batera.

4

Maisu argia da Jesukristo,
baina ez gero dotrinez,
jausi ta jagi, baztarrak jota
kurutzbidea eginez.
Ez da naikoa erantzutea
sentimentuz eta mihinez,
maitale batek erantzuten dau
jarraituz maitasun finez.

5

Kristok sufriduz agertu deusku
bere maitasun-neurria,
kostatzen ez dan maitasuna da
epela eta urria.
Maitasun-garrez desegin eban
arerio bihurria;
Kurutz-oinetan sortuz danontzat
bizi barri-iturria.



6

Jesus ordezeko asko daukaguz
munduko kalbarioan,
noiz agertuko lagun onen bat
bake ta poz-jarioan.
Jesus ez dago laguntza-eske
bakarrik sagraioan;
bietan lagun izanaz, biok
alkarren pozkarioan.

7

Buruz ta begiz begiratuta
ikusten zaitut josita,
ta ezagutu, Zeugaz sufriduz
begiak malkoz bustita.
Eta hau dana neugaitik dala
goi-argitan ikusita,
nire bizitza kristautasunez
Kurutz-ondoan hazi da.

8

Mundu honetan maitasun barik
dana da gatx eta astun,
horra Jesusek maitasun-garrez
Kurutzan zer lortu deuskun:
Heriotzetik bizia sortu
eta zeruan partedun;
maitasun horri erantzuteaz
a zer ardura daukagun!

9

Gora Kurutza eta gugaitik
hor Kurutzan Hildakoa!
Gora munduak Kurutzan Hila,
Aitak berbiztutakoa!
Hartu Zuretzat nire baietza
betea ta betikoa,
hainbesteraino maite leikenik
bakarrik da Jaungoikoa!!!